

Beste Iragarki Ofizial Batzuk

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

IRAGARKIA, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu Orokorraren zuzendariak 2005eko otsailaren 2an Ana Legarra Muñoa andreari pertsonalaren inguruko informazioa bidali diola jakinaraztekoa. 3003

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

IRAGARKIA, «Igorreko Saihesbidearen Proiektu Bategina» delakoaren informazio publiko eta ofizialaren espedientearen ebazpenari buruzkoa. 3004

Xedapen Orokorrak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

872

AGINDUA, 2005eko urtarrilaren 18koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroaren eta Goi-kargudunen Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen azaroaren 8ko 3/1991 Legearen 11. artikulua Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroa sortzen du, Erregistroan jaso behar diren inskribapenak adieraziz eta Erregistroaren izaera publikoa azpimarratuz.

Halaber, aipatu Legearen 55. artikulua arabera, aurrezki-kutxak behartuta daude Zuzendaritza Nagusiko eta aginte-organismoetako kideen izendapen, karguuzte eta berrautapenak Ogasun eta Herri Administrazio Sailari jakinaraztera, Goi-kargudunen Erregistroan inskribatzeko, aipatu 11. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Aipatu xedapenak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen urriaren 14ko 240/2003 Dekretuaren II. tituluak Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroaren eta Goi-kargudunen Erregistroaren egitura eta edukia, hurrenez hurren, arautzen dituzten bi kapitulu ditu.

Otros Anuncios Oficiales

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

ANUNCIO por el que se notifica a Dña. Ana Legarra Muñoa el envío de información en materia de personal del Director de Servicios Generales del Departamento de Agricultura y Pesca de fecha 2 de febrero de 2005. 3003

DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

ANUNCIO relativo a la resolución del expediente de información pública y oficial del «Proyecto Refundido Variante de Igorre». 3004

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

872

ORDEN de 18 de enero de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, sobre organización y funcionamiento del Registro de Cajas de Ahorro de Euskadi y del Registro de Altos Cargos.

El artículo 11 de la Ley 3/1991, de 8 de noviembre, de Cajas de Ahorros de la Comunidad Autónoma de Euskadi, crea el Registro de Cajas de Ahorro de Euskadi, indicando las inscripciones que han de constar en dicho Registro e incidiendo en el carácter público del mismo.

Asimismo, el artículo 55 de la Ley precitada establece que las cajas de ahorros vendrán obligadas a comunicar al Departamento de Hacienda y Administración Pública los nombramientos, ceses y reelecciones de los miembros de los órganos de gobierno y de los miembros de la Dirección General para su inscripción en el Registro de Altos Cargos, a los efectos previstos en el artículo 11 referido.

En desarrollo de las disposiciones citadas, el Título II del Decreto 240/2003, de 14 de octubre, de Cajas de Ahorros de la Comunidad Autónoma de Euskadi, contiene dos capítulos que regulan, respectivamente, la estructura y contenido del Registro de Cajas de Ahorro de Euskadi y del Registro de Altos Cargos.

Segurtasun juridikoaren mesedetan, komeni da hasitako bideari jarraitzea eta araubide zehatzagoa ezartzea Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroaren eta Goi-kargudunen Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduari begira.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluko 4. paragrafoan ematen zaizkidan eskumenak erabiliz, eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzen dituen urriaren 16ko 221/2001 Dekretuko 3. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritz,

XEDATU DUT:

1. *artikulua*.— Egitekoak.

1.— Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroaren eta Goi-kargudunen Erregistroaren helburua, indarrean dagoen araudiaren arabera, erregistro horietan sarrera duten ekintzak agitara ematea da.

2.— Aipatu ondorioetarako, Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroko eta Goi-kargudunen Erregistroko arduradunari dagokio bere ardurapean uzten diren egin-tzak kalifikatzea, beharrezko idazpenak egin eta erre-gistroen edukia egiaztatzea.

2. *artikulua*.— Erregistroen funtzionamendua eta eraginak.

Erregistroen funtzionamendua eta eraginak legezkotasunaren, publikotasun formal eta materialaren, zehaztasun eta balio-ustearen, eta segidako traktuaren printzipioetan oinarritzen dira.

3. *artikulua*.— Legezketasuna.

Egin beharreko idazpenak egin aurretik agiriak kalifikatu egin behar dira; agiriak kalifikatzeak agiriaren kanpoko formen legezkotasuna, izenpetzen edo egiten dituztenen legitimazioa eta edukiaren balioa barne hartzen ditu, agiriaren, agindu honek ukitzen dituen erre-gistroen edukiaren eta berezko erregistroko arduradunaren eskura dagoen informazioaren arabera.

4. *artikulua*.— Publikotasun formal.

1.— Publikotasuna dagokion Erregistroko arduradunak idazpenen edukiari buruz egiten duen ziurtagiriaren bitartez edo ohartarazpen soil batez burutuko da.

2.— Goi-kargudunen Erregistroko ziurtagiri eta ohartarazpen soiletan, agente-organoko kidearen nortasuna eta bere ordezkapen-taldearena soilik adieraziko da, edo Zuzendaritza Nagusiarena, dagokion kargua eta kargu-hartze eta kargu-uzte egunak.

5. *artikulua*.— Publikotasun material.

Erregistroetako Liburuen edukia jakintzat ematen da guztien partetik, eta beraz, ezin da ezjakintasuna argudiatu.

En aras de la seguridad jurídica, conviene seguir la línea emprendida, estableciendo una regulación más precisa en relación con la organización y funcionamiento del Registro de Cajas de Ahorro de Euskadi y del Registro de Altos Cargos.

De conformidad con las facultades que me son conferidas por el apartado 4.º del artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre «Ley de Gobierno», de acuerdo con el apartado 1 del artículo 3 del Decreto 221/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública,

DISPONGO:

Artículo 1.— Funciones.

1.— El Registro de Cajas de Ahorro de Euskadi y el Registro de Altos Cargos tienen por objeto dar publicidad de los actos que, según la normativa vigente, deban acceder a dichos Registros.

2.— A los citados efectos, corresponde al Encargado del Registro de Cajas de Ahorro de Euskadi y del Registro de Altos Cargos calificar los actos que se sometan a su consideración, extender los asientos oportunos y certificar el contenido de los Registros referidos.

Artículo 2.— Funcionamiento y efectos de los Registros.

El funcionamiento y los efectos de los Registros se rigen por los principios de legalidad, publicidad formal y material, presunción de exactitud y validez, y tracto sucesivo.

Artículo 3.— Legalidad.

Con carácter previo a la extensión de los asientos que correspondan, los documentos serán sometidos a calificación, la cual comprenderá la legalidad de sus formas extrínsecas, así como la legitimación de los que los otorgan o suscriben y la validez del contenido, de acuerdo con lo que resulte de ellos, del contenido de los Registros a que se refiere esta orden y de la información a disposición del Encargado del Registro que corresponda.

Artículo 4.— Publicidad formal.

1.— La publicidad se hará efectiva mediante certificación del contenido de los asientos expedida por el Encargado del Registro que corresponda o por simple nota informativa.

2.— En las certificaciones y notas simples del Registro de Altos Cargos se hará constar únicamente la identidad del miembro del órgano de gobierno y la de su grupo de representación, o de la Dirección General, el cargo que corresponda y las fechas de nombramiento y cese.

Artículo 5.— Publicidad material.

Se presume que el contenido de los Libros de los Registros es conocido por todos, no pudiéndose invocar su ignorancia.

6. artikulua.— Zehaztasun- eta balio-ustea.

Erregistroetako idazpenak ustez zehatzak eta baliodunak dira eta ondorio guztiak sortuko ditu, haien zehaztasun ezaren edo baliogabetasunaren adierazpena inskribatzen ez bada.

7. artikulua.— Segidako traktua.

1.— Inskribatu daitekeen subjektu baten egintzei buruzko idazpenak egiteko, beharrezkoa izango da lehenik subjektua inskribatzea.

2.— Aurretik emandako egintzak aldatu edo deuseztatzen dituzten egintzen idazpenak egiteko, beharrezkoa izango da aurretik haiek inskribatzea.

8. artikulua.— Eraginkortasuna.

1.— Erregistroetan egindako idazpenek adierazpen-ondorioak izango dituzte.

2.— Aitzitik, helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan duten aurrezki-kutxen sorrerako egintza Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroan inskribatzeak ondorio sortzaileak izango ditu.

9. artikulua.— Prozedura hasteko moduak.

Idazpenak egiteko prozedurak interesa duen aurrezki-kutxak eskatuta edo Administrazioaren kabuz hasi daitezke.

10. artikulua.— Interesa duen aurrezki-kutxak eskatuta hasteko modua.

Interesa duen aurrezki-kutxak eskatuta hasten diren idazpenak egiteko prozedurak eskabide bitartez hasiko dira eta dagokion idazpenean jaso beharreko datuekin batera horiek abalatzen dituzten tituluak erantsiko dira.

11. artikulua.— Administrazioaren kabuzko hasiera.

1.— Ondorengo egintzei buruzko idazpenak Administrazioaren kabuz egingo dira: erregistroetan sarrera eduki behar duten Ogasun eta Herri Administrazio Sailak baimendutako eta onartutako egintzak eta aurrezki-kutxen gaitan Euskal Autonomia Erkidegoko araudian larritzat eta oso larritzat jotako arau-hausteengatik ezarritako zehapen irmoak.

2.— Ogasun eta Herri Administrazio Sailak Aurrezki Kutxen Erregistroan edo Goi-kargudunen Erregistroan jasota egon behar eta ez dagoen edozein ingurubarren berri izango balu, Administrazioak bere kabuz dagokion idazpenaren prozedura hasiko du.

3.— Aurreko paragrafoan aipatzen den egoera eman go balitz, interesatua jakinaren gainean jarriko da, 15 eguneko epean komenigarritzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan; epea etenda geratuko da interesatuari eskakizuna jakinarazten zaionetik agindutakoa betetzen duen arte, edo, bestela, horretarako emandako epea amaitu arte.

Artículo 6.— Presunción de exactitud y validez.

Los asientos de los Registros se presumen exactos y válidos, y producirán todos sus efectos mientras no se inscriba la declaración de su inexactitud o nulidad.

Artículo 7.— Tracto sucesivo.

1.— Para extender asientos de actos relativos a un sujeto inscribible será precisa la previa inscripción del sujeto.

2.— Para extender asientos de actos modificativos o extintivos de otros otorgados con anterioridad será precisa la previa inscripción de éstos.

Artículo 8.— Eficacia.

1.— Los asientos extendidos en los Registros tendrán efectos declarativos.

2.— No obstante lo anterior, la inscripción del acto de creación de las cajas de ahorros domiciliadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi en el Registro de Cajas de Ahorro de Euskadi tendrá efectos constitutivos.

Artículo 9.— Clases de iniciación.

Los procedimientos de extensión de los asientos podrán iniciarse a solicitud de la caja de ahorros interesada o de oficio.

Artículo 10.— Iniciación a solicitud de la caja de ahorros interesada.

Los procedimientos de extensión de los asientos se iniciarán a solicitud de la caja de ahorros interesada mediante escrito de solicitud, acompañado de los títulos que avalen los datos a recoger en el asiento correspondiente.

Artículo 11.— Iniciación de oficio.

1.— Se extenderán de oficio los asientos relativos a los actos aprobados y a los autorizados por el Departamento de Hacienda y Administración Pública que deban acceder a los Registros, así como a las sanciones firmes impuestas por infracciones graves y muy graves tipificadas en la normativa de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de cajas de ahorros.

2.— El conocimiento por parte del Departamento de Hacienda y Administración Pública de cualquier circunstancia que, debiendo estar recogida en el Registro de Cajas de Ahorro o en el Registro de Altos Cargos no lo estuviera, dará lugar a la incoación de oficio del procedimiento de extensión del asiento correspondiente.

3.— En el supuesto a que se refiere el apartado anterior, se dará traslado al interesado para que, en el plazo de 15 días, pueda alegar lo que estime conveniente, quedando suspendido el plazo para resolver, por el tiempo que medie entre la notificación del requerimiento y su efectivo cumplimiento por el interesado, o en su defecto, por el transcurso del plazo concedido.

12. artikulua.— Liburuak.

1.— Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroan ondorengo liburuak eramango dira:

a) Egunkari Liburua, eta

b) bi inskribapen-liburu aurrezki-kutxa bakoitzeko. Lehenengoan aurrezki-kutxaren bulego eta agentziak irekitze eta ixteari buruzko idazpenak inskribatuko dira eta bigarrenean Erregistroan sarrera izan behar duten gainerako datuak jasoko dira.

2.— Goi-kargudunen Erregistroan ondorengo liburuak eramango dira:

a) Egunkari Liburua, eta

b) helbide soziala Euskadin duten aurrezki-kutxa bakoitzeko inskribapen-liburu bat.

3.— Aipatu liburuetakori orri bakoitzak izango ditu, gutxienez, egokiak diren orri-bazterreko oharrak, data, dagokion idazpenaren zenbakia eta bidezkoak diren idazpenak.

13. artikulua.— Idazpen motak.

1.— Erregistroen liburuetan ondorengo idazpen-motak egingo dira:

a) Aurkezpen-idazpenak eta Administrazioaren kabuz hasitako prozeduren idazpenak.

b) Inskribapenak.

c) Prebentzio-oharpenak.

d) Deuseztapenak.

e) Orri-bazterreko oharrak.

2.— Dagokion Erregistroko arduradunak baimenduko ditu egindako idazpenak bere sinadura eta zigilua-rekin.

14. artikulua.— Idazpenen edukia.

1.— Aurkezpen-idazpenak eta Administrazioaren kabuz prozedura hastekoak, gutxienez, ondorengo inguruabarrak izango dituzte:

a) Dokumentuaren izaera eta mota.

b) Dokumentua egin deneko lekua eta eguna.

c) Baimendu edo egin deneko datuak, eta dokumentu publikoen kasuan baimena eman duen pertsonaren, epailearen edo epaimahaiaren izena, edo dokumentu pribatuak izenpetzen dituzten pertsonen izena.

d) Dagokion Erregistroko arduradunaren sinadura.

2.— Forma edo edukia dela-eta erregistro-operazio bat eragin ezin duten dokumentuak edo beste Erregistro edo bulego publikoren baten eskumenekoak diren dokumentuen aurkezpen-idazpenik ez da egingo. Ukapena ebazpen bidez egingo da eta interesatuari jakinaraziko zaio.

3.— Inskribapen, deuseztapen, edo prebentzio oharpen-idazpenek, gutxienez, aurreko 1. paragrafoan adierazitako inguruabarrak izango dituzte bere barne, eta

Artículo 12.— Libros.

1.— En el Registro de Cajas de Ahorro de Euskadi se llevarán los siguientes Libros:

a) un Libro Diario; y

b) dos Libros de inscripciones por cada caja de ahorros. En el primero de ellos se extenderán los asientos relativos a la apertura y cierre de oficinas y agencias de la caja de ahorros y en el segundo se harán constar el resto de datos que deba acceder a este Registro.

2.— En el Registro de Altos Cargos se llevarán los siguientes Libros:

a) un Libro Diario; y

b) un Libro de inscripciones para cada una de las cajas de ahorros con domicilio social en Euskadi.

3.— Cada hoja de los Libros referidos contendrá, al menos, las notas marginales que procedan, la fecha y el número del asiento que corresponda, y los asientos oportunos.

Artículo 13.— Clases de asientos.

1.— En los Libros de los Registros se practicarán las siguientes clases de asientos:

a) Asientos de presentación y de iniciación de oficio.

b) Inscripciones.

c) Anotaciones preventivas.

d) Cancelaciones.

e) Notas marginales.

2.— El Encargado del Registro que corresponda autorizará con su firma y sello los asientos extendidos.

Artículo 14.— Contenido de los asientos.

1.— El asiento de presentación y el de iniciación de oficio contendrá, al menos, las circunstancias siguientes:

a) Naturaleza y clase de documento.

b) Lugar y fecha del documento.

c) Los datos de su autorización o expedición, así como el nombre de la persona autorizante o el Juez o Tribunal que lo expide en el caso de los documentos públicos, o el nombre de las personas que suscriben los documentos privados.

d) Firma del Encargado del Registro que corresponda.

2.— No se extenderán asientos de presentación de los documentos que, por su forma o contenido, no puedan provocar una operación registral o correspondan a la competencia de otro Registro u oficina pública. La denegación se realizará mediante resolución, que será notificada al interesado.

3.— Los asientos de inscripción, cancelación o anotación preventiva han de contener, al menos, las mismas circunstancias señaladas en el apartado 1 anterior,

Egunkari Liburuko dagokien orria ere barne izango du-te.

15. artikulua.— Hutsen zuzenketa.

1.— Zuzenketa idazpen berri batez egingo da; idazpen berriari zenbaki berria emango zaio eta ondorengoak jasoko ditu:

- a) Huts egin deneko idazpena eta lerroaren erreferentzia;
- b) Hitz edo kontzeptu okerrak;
- c) Egindako hutsen ordezeko hitzak; eta

d) Jatorrizko idazpena zuzenduta gelditu deneko adierazpena.

2.— Orri-bazterreko oharren zuzenketa zuzendutakoetatik ahal den gertuena egingo da.

3.— Erregistro-idazpen bat zuzentzen denean, idazpen okerraren ondoko bazterrean idazpen zuzentzaile-
ra bidaltze-ohar zuzen bat ipiniko da.

4.— Inskribapen, prebentzio-oharpen, deuseztapen edo orri-bazterreko ohar bat zuzendu eta gero, ukitutako gaiei dagozkien gainerako idazpenak ere zuzendu egingo dira, okerrak badira. Zuzenketa, dagokion orri-bazterreko oharraren bidez egingo da.

16. artikulua.— Kalifikazioaren eremua, edukia eta epea.

1.— Erregistro-kalifikazioa agindu honen 3. artikuluan aurreikusitako gaitara zabalduko da.

2.— Kalifikazioa bidezko idazpena egitearen ondorioetara mugatuta ulertuko da. Ondorioz, dagokion idazpena egingo da.

3.— Kalifikazioa idazpenak egiteko ezarritako epean eta ebazpen bidez egingo da, eta ebazpena interesatuari jakinaraziko zaio.

17. artikulua.— Zuzenketa.

1.— Interesatuak eskatuta hasitako prozeduretan, kalifikazioak zuzendu daitezkeen hutsak egozten badizkio tituluari, dagokion Erregistroko arduradunak prebentzio-oharpena egingo du, eta ohartaraziko dio 10 eguneko epean zuzenketa ez badu egiten, eskaerari uko egin diola ulertuko dela.

2.— Epea amaituta zuzenketa egin gabe edo dagokion errekurtsua jarri gabe, prebentzio-oharpena iraungi egingo da, administrazioaren kabuz deuseztatuko da orri-bazterreko ohar bidez eta interesatuari jakinaraziko zaio.

3.— Prebentzio-oharpena, bidezkoa denean, inskribapen bilakatuko da eta ondorioak izango ditu prebentzio-oharpena egin den egunetik aurrera.

includiendo, asimismo, la hoja del Libro Diario que correspon-da.

Artículo 15.— Rectificación de errores.

1.— La rectificación se realizará mediante la extensión de un nuevo asiento al que se otorgará un número nuevo y en el que se hará constar:

- a) La referencia al asiento y línea donde se ha cometido el error;
- b) Las palabras o conceptos erróneos;
- c) Los términos que sustituyan a los errores cometidos; y
- d) Declaración de haber quedado rectificado el asiento primitivo.

2.— La rectificación de notas marginales se extenderá lo más cerca posible de las rectificadas.

3.— Cuando se haya rectificado un asiento registral, se extenderá al margen del asiento erróneo una remisión suficiente al asiento rectificativo.

4.— Rectificada una inscripción, una anotación preventiva, una cancelación o una nota marginal, se rectificarán también el resto de los asientos relativos a las materias afectadas, si también fueran erróneos. Dicha rectificación se realizará mediante la extensión de la correspondiente nota marginal.

Artículo 16.— Ámbito, contenido y plazo de la calificación.

1.— La calificación registral se extenderá a los extremos previstos en el artículo 3 de la presente orden.

2.— La calificación se entenderá limitada a los solos efectos de la extensión del asiento oportuno. Como resultado de la misma, se extenderá el asiento que correspon-da.

3.— La calificación se realizará dentro del plazo establecido para la extensión de los asientos mediante resolución, que será notificada al interesado.

Artículo 17.— Subsanción.

1.— En los procedimientos iniciados a solicitud de interesado, si la calificación atribuye al título defectos subsanables, el Encargado del Registro que correspon-da extenderá anotación preventiva, advirtiéndole de que, si no procede a la subsanación de los mismos en el plazo de diez días, se le tendrá por desistido de su petición.

2.— Transcurrido dicho plazo sin la correspondiente subsanación, o sin haber interpuesto el recurso correspondiente, caducará la anotación preventiva, cancelándola de oficio mediante nota marginal y notificándosele al interesado.

3.— La anotación preventiva se convertirá, cuando resulte procedente, en inscripción. La misma producirá efectos desde la fecha de la anotación preventiva.

18. artikulua.— Idazpenak egiteko epea.

1.— Interesa duen aurrezki-kutxak eskatuta hasitako prozeduretan, inskribapen-idazpenak, prebentzio-oharpenak edo deuseztapenak gauzatzea, bidezkoa bada, hogeita hamar eguneko epean egingo da, betiere Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren eskaria jasoz denetik kontatzen hasita.

2.— Administrazioaren kabuz hasitako prozeduretan, inskribapen-idazpenak, prebentzio-oharpenak edo deuseztapenak burutzea, bidezkoa bada, hogeita hamar eguneko epean egingo da Administrazioaren kabuz prozedura hasteko erabakia hartzen denetik kontatzen hasita.

19. artikulua.— Aurkezpen eta prozedura hasteko idazpenaren deuseztapena.

1.— Interesatuak eskatuta hasitako prozeduretan, idazpena egiteko eskaria ezetsita edo kalifikazioaren aurkako dagokion errekurtsioa jarri gabe edo idazpena egiteko epea amaituta hutsen zuzenketa egin gabe, aurkezpen-idazpena Administrazioaren kabuz deusezteari ekingo zaio orri-bazterreko oharpen bidez.

2.— Administrazioaren kabuz hasitako prozeduretan, epea amaituta idazpenik egin gabe, prozedura hasteko idazpena administrazioaren kabuz deusezteari ekingo zaio orri-bazterreko ohar bidez.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honen ondorioetarako, Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroko eta Goi-kargudunen Erregistroko arduraduna Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Finantza zuzendaria da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Erregistroko arduradunak bere kabuz egingo ditu beharrezkoak diren idazpenak Aurrezki Kutxen Erregistroko eta Goi-kargudunen Erregistroko edukia agindu honetan aurreikusitako formara egokitu dadin.

Aipatu ondorioetarako, aurrezki-kutxek eskatzen zaizkien agiriak emango dituzte.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hogeita hamar egunera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko urtarrilaren 18a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Artículo 18.— Plazo para la extensión de los asientos.

1.— En los procedimientos iniciados a solicitud de la caja de ahorros interesada la práctica de los asientos de inscripción, anotación preventiva o cancelación se realizará, en caso de que proceda, en el plazo de treinta días, contados a partir de la recepción de la solicitud en el Departamento de Hacienda y Administración Pública.

2.— En los procedimientos iniciados de oficio la extensión de los asientos de inscripción, anotación preventiva o cancelación se efectuará, en caso de que proceda, en el plazo de treinta días desde el acuerdo de iniciación de oficio.

Artículo 19.— Cancelación del asiento de presentación y de iniciación.

1.— En los procedimientos iniciados a solicitud de interesado, desestimada la solicitud de extensión del asiento o transcurrido el plazo para la práctica del mismo sin haberse subsanado los defectos o sin haberse interpuesto el recurso correspondiente contra la calificación, se procederá a la cancelación de oficio del asiento de presentación mediante nota marginal.

2.— En los procedimientos iniciados de oficio, transcurrido el plazo sin extender asiento alguno, se procederá a la cancelación de oficio del asiento de iniciación mediante nota marginal.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

A los efectos de la presente orden, el Encargado del Registro de Cajas de Ahorro de Euskadi así como del Registro de Altos Cargos es el Director de Finanzas del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

El Encargado del Registro extenderá de oficio los asientos que fueran precisos con objeto de que el contenido del Registro de Cajas de Ahorro y del Registro de Altos Cargos se adapte a la forma prevista en la presente orden.

A los efectos indicados, las cajas de ahorros proporcionarán la documentación que les sea requerida.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden entrará en vigor a los treinta días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de enero de 2005.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.